



Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio
Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartea

Asociación Vasca de Profesionales de Archivos,
Bibliotecas y Centros de Documentación

Egitasmoa 2020

Edukiak

1. Misioa, ikuspegia eta balioak

2. Agentekak

- Zuzendaritza Batzordea
- Bazkideak

3. Ekintza-ildo iraunkorrak

- Lanbidearen defentsa eta sustapena
- Bazkideentzako zerbitzuak
- Gizartearentzako zerbitzuak

4. Ildo estrategikoak

- Prestakuntza
- Harreman instituzionalak
- Barne eta kanpo komunikazioa

5. Zeharkako ildoak

- Iraunkortasun ekonomikoa
- Parte hartzea
- Elebitasuna

6. Helburu zehatzak eta ekintza-proposamenak

SARRERA

Plan estrategikoa tresna bat da elkartearen ekimen eta jarduera guztiak egituratzeko, kudeaketa optimizatzeko eta ikuspegi bateratua emateko, bertan elkartekideek parte har dezaketen gune guztiei buruzko informazio zehatza izan dezaten. .

Batzordearen jardun-, antolamendu- eta konpromiso-esparrua da, bazkide guztien aurrean lankidetzarako eta konpromisorako gune garden bat sortu nahi duena.

MISIOA

ALDEE Euskal Autonomia Erkidegoan artxiboen, liburutegien eta dokumentazio-zentroyen bidez informazioa kudeatzearekin lotutako profesionalak biltzen dituen elkartea da. Inguruko gizarte- eta lanbide-errealitatearekin oso lotuta dago elkartea, eta lanbidearen garapen orokorrarekin eta bazkideen defentsa eta hobekuntza profesionalarekin konprometituta dago.

IKUSPEGIA

ALDEEk izan nahi du, eta konpromiso hauek hartzen ditu:

- Elkartekideen eta, oro har, lanbidearen interes profesionalak ordezkatzeta eta defendatzea.
- Erreferente profesionala izatea bazkideentzat, sektoreko profesionalentzat, instituzioentzat, erakundeentzat eta EAEko sektoreko enplegataileentzat.
- Sektorearen prestakuntza-beharrak identifikatzea eta jardunbide egokiak, berrikuntza eta bikaintasuna sustatzea.
- Administrazioekin lankidetzan aritzea gure sektore profesionalen garapenean.
- Esperientziak partekatzeko, elkarlanean aritzeko, hausnartzeko eta berritzeko foroa izatea.
- Diziplinartekotasuna eta beste profesional batzuekiko harremana sustatzea.
- Lanbidearen ikusgarritasun soziala handitzea.

BALIOAK

Funtsezko balioek gure erakundearen printzipio gidariak islatzen dituzte, bazkideen lehentasunak eta ekintzak gidatzen dituztenak barne:

- Berrikuntza: sortzen ari diren gaiak sustatzen
- Lankidetzeta eta lankidetzeta: beste erakunde batzuekin borondateak integratuz eta aliantzak ezarriz
- Hartutako konpromisoak betetzeko erantzukizuna
- Errespetua eta tolerantzia
- Gardentasuna kudeaketan
- Etika profesionala
- Erantzukizun soziala eta elkartasuna
- Lidergoa

2. Agentekak

ZUZENDARITZA BATZORDEA:

Elkartearen jarduerak sustatzeaz eta helburu estrategikoak betetzen direla zaintzeaz arduratzen den kide anitzeko organoa da.

10 pertsonak osatzen dute, eta hauek dira karguak: Lehendakaritza, Lehendakariordetza, Idazkaritza Nagusia, Diruzaintza eta bokalak (6).

Lan arlo nagusietan banatzen dute beren lana: prestakuntzan, komunikazioan eta erakundearen arteko harremanetan, lantaldeen lana koordinatzeaz gain. Horrez gain, bazkideei arreta emateaz, kuotak kudeatzeaz eta antolatutako jardueren martxa egokirako logistika ziurtatzeaz arduratzen den gerente baten babesa du.

BAZKIDEAK:

Bazkideek elkartearen jardueretan parte har dezakete iradokizunak, eskaerak eta abar bidaliz, eta hainbat alderditarako bultzatutako lantaldeetan ere lagun dezakete.

LANBIDEAREN DEFENTSA ETA SUSTAPENA

- Artxiboen, liburutegien eta dokumentazio zentroyen kudeaketa arloan lan egiten duten profesionalen lan baldintzak hobetzen laguntzea.
- Eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren kompetentzia profesionalak eta teknikoak definitzea.
- Artxiboen, liburutegien eta dokumentazio zentroyen politikarekin zerikusia duten informazio, harreman eta ordezkaritza bideak ezartzea autonomia, estatu eta nazioarte mailako instituzio eta organismo publiko eta pribatuetan.
- Sektore profesional horrek gizartean duen ikusgarritasuna handitzea.

BAZKIDEENTZAKO ZERBITZUAK

- Kongresuak, batzarrak, hitzaldiak eta erakusketak antolatzea eta horietan parte hartzea.
- Elkarteko kideentzat interesgarriak diren gaiei buruzko argitalpenak, arau-zirkularrak eta beste edozein motatako informazioa ekoitzea eta zabaltzea.
- Artxibozain, liburuzain eta dokumentalgileen etengabeko prestakuntza sustatzea, eta azterlanak eta ikerketak egitea, sektoreko arlo guztietako zerbitzuak hobetzeko.
- Bazkideei aholkuak eta informazioa ematea.

GIZARTEARENTZAKO ZERBITZUAK

- Gure jardueraren izaera soziala balioesten duten proiektuak bultzatzea.
- Erakundeen arteko lankidetzaren proiektuak sustatzea.
- Administrazio publikoek sustatutako edo bultzatutako proiektuetan laguntzea.
- Sektoreko politika aurreratuak bultzatzea: legeak, plan estrategikoak, alfabetatze informazionala, bititza osoan zeharreko ikaskuntza...

4. Ildo estrategikoak

Honako lerro estrategikoak jarraituko ditu ALDEEk 2020an:

- Prestakuntza
- Profil profesionala
- Harreman instituzionalak
- Barne eta kanpo komunikazioa
- *Koordinazioa eta kudeaketa orokorra*

5. Zeharkako hildoak

Horietaz gain, aurreko urteetako zehar lerroak mantenduko dira:

- Iraunkortasun ekonomikoa
- Parte hartzea
- Elebitasuna

01 PRESTAKUNTZA

1.1. Urteko ikastaro plangintza bazkideen parte hartzea bultzatuz eta eraginkortasunez aurrera eramatea

- Ahal den neurrian, aurreikusitako programazioari eusten saiatuko gara, COVID-19k eragindako egoera dela eta
- Bazkideen parte-hartzea: bazkideei ikastaro-proposamenak egiteko eskatuko zaie eta ikastaroak emateko aukera ere eskainiko zaie
- Baliabideak: ikastaroak emateko baliabideak, lekuak eta azpiegiturak eskaintzen dituzten erakundeekin elkarlan hitzarmenak landuko dira
- Elebitasunaren zaintza egin: ikastaroak euskaraz eskaintzeko ahalegina egingo da
- Arlo honetako beste eragile batzuekin lankidetzan jarraitukoko da: Xenpelar, UEU, EWKE...

1.2 Udako Euskal Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan Jardunaldiak antolatzea

- UEUrekin Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen VI. Bilkura antolatuko da: "Tokiko bildumak. GLAM erakundeek eta komunitateek tokiko memoria elkarrekin eraikitzen."

02

PROFIL PROFESIONALA

2.1. Gure eremuan prestakuntza homologatua abian jartzeko aukeren inguruan lanean jarraitzea

➤ UEUrekin lanean jarraitzea, liburutegi, artxibo eta dokumentazioaren arloko espezializazio-ikastaro bat abian jartzeko

2.2. Profil profesioanala

➤ Liburutegien Aholku Batzordearen konpromisoa bilatuko da, Liburutegien Legean jasotako langileen erregelamendua garatzeko

➤ Lanean jarraituko da negoziazio-bideak irekitzeko, eta, horrela, EAEn eremuan hitzarmen sektorial propioa lortzeko

➤ FESABIDek sortutako Lanbidea Defendatzeko Behatokia parte hartzen jarraituko da

➤ Gure eremuko profesionalentzako gutxieneko baldintza duinak bermatzen ez dituzten enplegu publikoko deialdiei eta kontratu publikoen pleguei alegazioak aurkezten jarraituko da

➤ Lanean jarraituko da zerbitzuen estatistikek langileen baldintzei buruzko informazio zehatzagoa jaso dezaten

03

HARREMAN INSTITUZIONALAK

3.1. Arduradun politikoekin harremanak gauzatzea liburutegi eta artxibo politketan eragiteko - Agenda 2030

- Erakunde hauekin harremanak mantendu::
 - Eusko Jaurlaritzaren Presidentzia eta Gobernantza Sailarekin. Agenda2030
 - Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarekin, artxibo eta liburutegietako politiken eta lege garapenaren inguruan
 - Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Publiko Sailarekin, etorkizuneko gardentasunari eta informazioaren sarbideari buruzko legearen inguruan
 - Departamento de Educación para realizar el seguimiento de la situación de las bibliotecas escolares en la CAE.
 - Foru Aldundiekin, udal eta tokiko erakundeekin
 - Artxibo eta liburutegietako politketan eragiteko helburuarekin, Innobasquerekin elkarlana eta profesionalen arteko topaketak antolatzeke beharra aztertuko da

3.2. Erakunde ezberdinekin elkarlan eta ordezkari lanak

- Estatuko beste elkarte batzuekin lankidetzak-akordioak egin. Helburuen artean: ALDEEko bazkideentzako deskontuak lortzea haiek antolatutako ikastaroetan
- FESABID elkarteko zuzendaritzan ALDEE ordezkari lanak da
- Euskadi Sarietako haur literaturaren epai-mahaian ALDEE ordezkari lanak da
- DOBAUBA (Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzorde) elkartean ALDEEren ordezkari lanak mantenduko da
- Hainbat erakunderekin lankidetzan aritzea, lanbidearen prestakuntza eta garapen lanak egiteko.

04

BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOA

4.1. Web berria

- Web berria erabilgarria 2020ko ekainan
- Web berria pixkanaka hobetutako edukiz hornitzen joango da
- Gure bazkideak hobe ezagutu (bere behar, eskaerak...), lagungarriak izan daitezkeen kalitatezko edukiak eskaini ahal izateko
- Gure lan arloko beste erakunde eta lankideekin komunikazio ekimenetan elkarlanean aritu
- Lan arloko berri, hobekuntza eta ekimenen segimendua egiten jarraitu, gure elkarkide eta lankideei ezagutarazeko
- Webguneko "estekak" atala hobetu, sektoreko erreferentziatzko informazio-biltegia izan dadin

4.2. Lan-poltsaren eguneratzea

- EAEko lan-eskaintza berrien jarraipena egingo da medioetan, eta bazkideei helaraziko zaie
- Maizen jasotzen diren orientazio profesionaleko bi galderen erantzun orokorrak prestatu eta webguneko FAQetan eskegiko dira

4.3. Bazkideekin harremana zaintzea

- Jasotako galderari erantzuna eman eta eskarien aholkularitza bideratuko da
- Sei hilean behin albiste-buletina egiten eta bidaltzen jarraitzea, gure kideek batzordeak egindako lanaren laburpena izan dezaten

4.4. Elkarrearen irudia hobetzea maila komunikatiboan

- Barne eta kanpo komunikazioko plan bat egitea, komunikazio digitaleko estrategia bat izango duena, sare sozialetan dugun presentzia hobetzeko
- Gure lan arloaren ikusgarritasuna hobetu dezaketen komunikazio kanpainak antolatu
- Elkarreak komunikabideetan duen presentzia handitu

4.5. Batzordeko kideen arteko komunikazioa bizkortzea

- Online ikaskuntza plataformaren komunikazio modulua erabiliko da bilerak egiteko, etab.

05

KOORDINAZIOA ETA KUDEAKETA OROKORRA

5.1. Barne antolaketa eta kudeaketa prozedurak hobetzea

- Barne antolaketan egokitzapenak egin:
 - Fakturazio prozedura berriak ezarriko dira e-fakturazioan sakonduz
 - Bazkideen kudeaketako datuak eta kudeaketa ekonomikoarenak sinkronizatzeko prozedurak ezarriko dira
 - Dokumentuak elektronikoki sinatzeko prozedurak ezarriko dira

06

ZEHARKAKO ILDOAK

6.1. Iraunkortasun ekonomikoa

- Bilerak birtualki eginez, kudeaketa orokorraren gastuak gutxitzen lagunduko da
- Patrozinioen alorrean irekitako bidean sakonduko da

6.2. Parte hartzea

- Bazkideek ikastaroen antolaketan parte hartzeko aukera eskainiko da
- Lan-taldeetan parte hartzeko aukerak eskainiko zaizkie bazkideei
- EAEko profesionalen hausnarketa-jardunaldiak antolatzea - "Tailer profesionalak" -, sektoreko arlo guztietako arazo komunak aztertzeko eta arazo horiei lotutako jardunbide egokiak aurkezteko

6.2. Elkartearen 30. Urteurrena ospatzea

- Bilerak eta ekitaldiak elebitasunean bizitzeko aukerak zainduko dira
- Euskaraz antolatutako ikastaro eta jardunaldiak sustatzen jarraituko da
- Edukien itzulpen hutsean oinarritutako elebitasunetik ihes egitea eta bi hizkuntzak neurri berean integratzearen alde egitea (adibidez, albiste-buletinean)



Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio
Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartea

Asociación Vasca de Profesionales de Archivos,
Bibliotecas y Centros de Documentación

Eskerrik asko